

Garraio publikoa funtsezkoa da, baina erabiltzaile askok segurtasun, diskriminazio eta jazarpen arazoak pairatzen dituzte. Arazo hauek konpontzeko, autobusetan larrialdietarako botoi batzuk jartzea proposatzen dugu, larrialdietan jokabide susmagarriei modu diskretuan erantzuteko. BAB (Biolentzia aurkako botoia) izendatuta dago gure produktua.

Gailu honek segurtasuna hobetzen du, delituak prebenitzen ditu, erantzuteko denbora murrizten du eta bidaiarien ongizatea handitzen du. Gainera, erabiltzeko erraza da, estres-egoeretan ere aktibatzea ahalbidetuz. Gidari eta segurtasun-langileekin konektatuta dago, erreakzio azkarra eta koordinatua bermatzeko. Gure produktuak komunitate seguruago bat sustatzen du, jazarpenari eta erasoari aurrea hartuz. Horrek garraio publikoko konfiantza eta inklusioa indartzen laguntzen du.

